



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GARAPEN AGENTZIA ZERBITZUAK ENERGIA ARLOAN PROGRAMA BAT  
GARATZEKO TEKNIKARI BAT BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEKO  
HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRIAK**

***“ESKUALDEKO ENPRESETAN ENERGIAREN BALIO KATEAK ETA  
ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA”***

**ESPERIENTZIADUN TEKNIKARIA**

**1.- Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea honako hau da: Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentzia Zerbitzuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 29/2014ko Foru Dekretuan jasotako diru-laguntzarekin eta elkarlanean, energia arloan garatuko duen goian aipatu programa bideratzeko **esperientziadun** behin behineko teknikari postu bat bitarteko funtzionario izaeraz betetzea.

Teknikari honen zereginak honako hauek izango dira:

- Eskualdeko enpresen eta energiaren industriaren balio katearen analisiak egitea.
- Eskualdeko enpresekin, lan pedagogikoa eta dinamizazio lanak ere burutu behar izango ditu, eta auditoria energetikoak egin energia aurrezteak duen garrantzia indartzeko.

Bere hileko ordainsari gordina 1.339,63 €-koa izango da, honela banatuta:

- Soldata: 479,49 €.
- Lanpostu-mailako osagarria: 223,68 €. (17)
- Berariazko osagarria: 636,46 €.

Bitarteko izendapenaren iraupena zazpi hilabetekoa izango da, lanaldi erdiz.

Euskal Enplegu Zerbitzuan langabetu gisa izena emanda dagoen langabetua izendatuko da.

Ariketa kanporatzaileak gainditzen dituzten hautagaien zerrenda, deitutako postu-kopurutik aurrera, postu berdin edo antzekoetan gertatzen diren aldi baterako langile-premiak asetzeko erabili ahal izango da.

**2.- Hautagaien baldintzak**

Onartuak izan eta, hala badagokie, oposizio-lehiaketan parte hartzeko, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hautagaiak ondorengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren baten nazionalitatea izatea, edota Europako Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko Itunen aplikazioaren arabera, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion Estaturen bateko nazional izatea.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Baita ere parte har dezake Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko nazionalen ezkontideak, zuzenbidez banatuta ez badago, baita horren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere bi ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude, ondorengo hauek hogeita bat (21) urtez beherakoak izan edota zaharragoak izan, baina haren kontura bizi baldin badira.

- b) 16 urte beteta izatea, eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina gainditu gabe izatea.
- c) Goi mailako unibertsitate-titulazioa (lizentziatua, graduatua edo baliokidea) ingeniartzan edo arkitekturan izatea.
- d) Lanpostuko eginkizunak betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.
- e) Herri Administrazioen zerbitzura lan egiteko debekupean ez egotea zigor-espedienteen ondorioz, edo eginkizun publikoak betetzeko gaitasungabetu edo inhabilitatuta ere ez egotea.
- f) Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak —Herri Administrazioen zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzkoak— ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasuneko kausa legalen batean sartuta ez egotea, baina lege-arau horrek berorrek aipatzen duen aukera-eskubidea erabil dezakete dagoeneko postu publiko batean daudenek edo bateraezina den jarduera pribatu batean dihardutenek.
- g) Bete beharreko lanpostuaren zereginekin lotutako esperientzia laborala izatea.

### **3.- Eskariak aurkeztea**

Oposizio-lehiaketan onartuak izateko eskariak Mankomunitateko lehendakariari zuzendu behar zaizkio, eta 2014ko azaroaren 3aren arratsaldeko ordu biak (14:00) baino lehen aurkeztu behar dira, ondorengo baldintzak betez:

- a) 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela agerrarazi behar dute hautagaiek, eskariak aurkezteko epea bukatzen den datari buruz betiere.
- b) Hautagaiek lehiaketa-aldian balioetsiko diren merituei buruzko datuak agerrarazi behar dituzte. Ez dira balioetsiko eskarian zehazten ez direnak.

Eskariak, eta horien eredua Mankomunitatean emango da, behar bezala beteta eta NA-DNIren fotokopiarekin batera, Mankomunitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 17an, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak— 38.4 artikuluan ezartzen dituen moduetakoren batean.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### 4.- Aurkeztu beharreko agiriak

a) Eskariarekin batera aurkeztu beharrekoak:

- NA-DNIren fotokopia, edo Europar Batasuneko beste estatu bateko kideen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatuko dituen agiriaren fotokopia.
- Hala badagokio, egiaztaturik duen hizkuntz eskakizunaren frogagiria.

b) Aukeratze-prozesuan aurkeztu beharrekoa:

Eskarian alegaturiko merituen egiaztagiria gero aurkeztuko dira, Epaimahai Kalifikatzaileak adieraziko duen eran eta epean.

Agiri hau oposizio-aldia gainditzen dutenei bakarrik eskatuko zaie.

c) Aukeratze-prozesua bukatzen denean aurkeztu beharrekoak:

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharren egiaztagiria gainditu duten hautagaiek bitarteko izendapena baino lehen aurkeztu beharko dituzte, Mankomunitateak eskatzen dizkienean.

d) Agiriak alderatzea:

Parte hartzeko eskatzen diren baldintzak nahiz merituak egiaztatzeko, agiri orijinalak aurkeztu behar dira beren kopiekin Mankomunitateko Erregistrora ekartzen direnean bertan alderatzeko, salbu NA-DNIren kopia, hori eskariarekin batera entregatu behar baita. Kopia orijinalarekin alderatzea Mankomunitatean bertan egingo da, eta oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko bakarrik.

### 5.- Hautagaien onarpena

Eskariak aurkezteko epea bukatzean, hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu Mankomunitateko lehendakariak. Zerrenda horiek Mankomunitateko iragarki-taulan emango dira argitara eta web orrian, [www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net), eta 3 laneguneko epea utziko da ez-onartzea eragin duten akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko, edota zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Ez bada erreklamaziorik aurkeztzen, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira. Erreklamazioak egiten badira, onartu edo baztertu egingo dira beste ebazpen baten bidez, eta honela onarturiko behin-betiko zerrendak lehen adierazitako moduan jarriko dira jende aurrean.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

### **6.- Epaimahai Kalifikatzailea**

Honela osatuko da oposizio-lehiaketako Epaimahai Kalifikatzailea:

#### **Lehendakaria**

- Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzuko arduraduna edo honek eskuordeturiko teknikaria.

#### **Mahaikideak**

- Garapen Agentziako Enplegu teknikaria edo honek eskuordeturiko teknikaria.
- Bi udal enplegu teknikari.

#### **Idazkaria**

- Mankomunitateko idazkaria edo, hala balegokio, bertako Administrazio Orokorreko teknikari bat.

Hautaketa probatan eta hautaketa batzordeko bileretan, Agentziako batzordeko zein Gobernu Juntako kideak egon ahal izango dira; baita langileen ordezkariak ere.

Epaimahaiko kideak Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapen hori Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango da argitara, onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera..

Epaimahaiari komenigarri iruditzen zaion probetan, gai bakoitzean aditu diren aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak 28. artikuluan ezarritako egoeretakoren bat ematen bada Epaimahaiko kideengan, kide horiek ez dute esku hartu behar —Mankomunitateko lehendakariari jakinaraziz— eta hautagaiek ere ezetsi egin ditzakete.

### **7.- Oposizio-aldiko ariketak**

Oposizio-aldiko ariketetarako deiak, Epaimahaiaren ebazpenak eta prozedura honen ondoriozko gainerako jakinarazpenak Mankomunitateko iragarki-taulan eta web orrian emango dira argitara.

Ekitaldi bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hauek behar bezala justifikatuta badaude eta Epaimahaiak askatasunez horrela iritzita.

Oposizio-aldian ondorengo ariketak egingo dira:

**Lehen ariketa:** Euskara proba. Nahitaezkoa eta kanporatzailea. 3. hizkuntza eskakizunaren mailako proba bat egingo da euskararen ezagutza baloratzeko. Oposizio-gileek 3. hizkuntza-eskakizunari dagokion ezagutza gainditu beharko dute.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ariketa honetan GAI edo EZ GAI emango da, eta proba honek barne ondorioak izango dituenez soilik, Mankomunitateak ez du inolako ziurtagiririk luzatuko.

Proba hau egitetik salbuetsita egongo dira Euskal Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko indarrean dauden arauetan aurreikusitako titulu edo agiriren bat dutela egiaztatzen duten oposizionalek.

Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta kanporatzailea atal bakoitzean

I eranskinean jasotako gaiekin lotutako proba teoriko-praktikoa. Ariketa honen gehienezko kalifikazioa 34 puntukoa izango da.

Ariketa hiru zatitan banatuko da.

- 1go zatia: Eranskinaren 1go atalean jasotako gaiekin lotutako proba izango da. Proba honen gehienezko kalifikazioa 8 puntukoa izango da eta gutxienez 4 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- 2. zatia: Eranskinaren 2. atalean jasotako gaiekin lotutako proba izango da. Proba honen gehienezko kalifikazioa 20 puntukoa izango da eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- 3. zatia: Eranskinaren 3. atalean jasotako gaiekin lotutako proba izango da. Azkeneko proba hau ordenagailuan egin beharko da ofimatikako programa informatikoak eta Internet erabiliz. Honako aplikazio informatiko hauek erabiliko dira: Microsoft Officeko Outlook, Word eta Excel edo libreofficeko aplikazio baliokideak eta Mozilla Thunderbird. Ariketa honen gehienezko kalifikazioa 6 puntukoa izango da, eta gutxienez 3 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

### **8.- Lehiaketa-aldia**

Merituen lehiaketa aldia ez da kanporatzailea izango, eta hor lortutako puntuazioa ere ezingo da kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

Epaimahaiak ondorengo merituak balioetsiko ditu, eskaria egiterakoan alegatu eta Epaimahai Kalifikatzaileak eskaturiko unean behar beste egiaztatu baldin badira.

- a) Prestakuntza osagarria hartu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunetarako. Gehienez ere 5 puntu.

Atal hau honela balioetsiko da:

Energia arloko (Energia berriztagarriak, auditoria energetikoak, energiaren eraginkortasuna) prestakuntza.

Ez dira baloratuko 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak.

20 eta 50 ordu arteko ikastaroak: puntu 1 bakoitza.

50 ordu baino gehiagokoak: 2 puntu bakoitza.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

b) Lanbide-esperientzia hartu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunetan. 0,2 puntu balioetsiko da lan egindako hilabete bakoitzeko, gehienez 5 punturaino.

Aurreko ataletan aipaturiko lanbide-esperientzia INSSk egindako frogagiriaren bidez eta egindako lanen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

### **9.- Epaimahaiaren proposamena**

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa eta oposizio aldietan lorturiko puntuen batura izango da, eta honela ezarriko da azken puntuazio-ordena,

Merituen eta ariketen kalifikazioa bukatu ondoren, eta azken puntuazio-ordenaren arabera, Epaimahaiak argitara emango du probak gainditu dituzten hautagaien zerrenda.

Epaimahaiak Mankomunitateko lehendakaritzari emango dio zerrenda hori aldi baterako izendapenerako erabil dezan.

Lanean hasi aurretik, oposizio-lehiaketan parte hartzeko 2. oinarrian eskatzen diren baldintzen egiaztagiria Mankomunitateko Idazkaritza Nagusian aurkezteko eskatuko zaie prozesua gainditutako zerrendan dauden hautagaiei.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko kasuren batean izan ezik, proposaturiko hautagaiek ez badute eskaturiko dokumentazioa aurkezten edo, aurkeztutakoa aztertu ondoren, baldintzaren bat ez dutela betetzen ikusten bada, ezingo dira horiek kontratatu, eta bertan behera geratuko dira berari buruzko jarduketa guztiak, faltsukeriagatik izan dezakeen erantzukizunaz gain.

### **10.- Gorabeherak**

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena du edozein zalantza argitzeko eta oposizio-lehiaketa ongi gauzatu dadin beharrezko erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan ezarri gabeko guztian.

### **11.- Aurka egiteak**

Deialdi honen, beronen oinarrien eta ondorengo administrazio-egintzen eta Epaimahaiaren jardunaren aurka, abenduaren 26ko 30/1992 Legeak —Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzkoak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuta— eta Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen Legeak ezarritako kasuetan eta eran egin ahal izango da.

**EGINBIDEA.- Oinarri hauek Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2014ko urriaren 23an egindako bileran.**

**Arrasaten, 2014ko urriaren 24ean.  
IDAZKARIA**



## **I ERANSKINA**

### **1go Ataleko Gai Zerrenda**

- 1.- Debagoieneko eskualdea. Egitura orokorra eta tokiko erakundeak.
- 2.- Debagoieneko egitura ekonomikoa. Eskualdeko enpresa eta sektore esanguratsuenak.
- 3.- Debagoieneko eskualdean energiaren sektorearekin erlazionaturiko prestakuntza eskaintzak dituzten irakaskuntzako erakundeak.

### **2. Ataleko Gai Zerrenda**

- 1.- Merkatu elektrikoaren funtzionamendua, tarifa edo salneurrien tipoak, kontratazioak, banatzaileak, saltzaileak, araudia, erregulazioa, autokontsumoa, eta gaiarekin erlazionaturiko beste aspektu batzuk barne.
- 2.- Gasaren merkatuaren funtzionamendua, tarifa edo salneurrien tipoak, kontratazioak, banatzaileak, saltzaileak, araudia, erregulazioa eta gaiarekin erlazionaturiko beste aspektu batzuk barne.
- 3.- Energia berriztagarrien merkatuaren funtzionamendua, bereziki biomasa edo hirigunetan elektrizitatea sortzeko sistema fotovoltaikoak edo haize errota txikiak.
- 4.- Eraginkortasun elektrikoarekin eta energiaren aurrerapenarekin erlazionaturiko soluzioen gaineko ezagutza, besteak beste, abiagailuak, aldagailuak eta egote detektagailuak.
- 5.- Argiteri sistemen eraginkortasuna eta kudeaketarako soluzioak; argiteri tipologiak, araudia, teknologiak, fabrikatzaileak eta aplikazioak.
- 6.- Termiko gaietan eraginkortasuna eta aurrerapenarekin erlazionaturiko soluzioen gaineko ezagutza, besteak beste, energiaren berreskuragailuak, efizientzia handiko ekipiak, erregulaziorako sistemak, energiaren metagailuak.
- 7.- Kostu energetikoak, kontsumoen neurgailuak, monitoreen bitarteko kontrolerako plataformak.
- 8.- Instalazioen tele-kudeaketarako soluzioak.
- 9.- Zertifikazio energetikoa.
- 10.- Eraikinen birgaitze energetikoa, isolamenduak, estaldurak, aireztatzeko sistemak, hezetasunak eta eraikinen problematika energetikoen soluzioak

### **3. Ataleko Gai Zerrenda**

- 1.- Debagoienean energiaren sektorean lana egiten duten enpresak.